

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

Behin betiko onestea hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza

Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen hasierako onespren erabakiaren aurka erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsi da, eta horren testu osoa argitaratzen da.

Ordenantza behin betiko onesteko erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean jasotako moduan, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Azilu, 2025eko abenduaren 5a

Alkatea

IRATXE DEL BARCO MURUA

HIRI LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udal honek hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga ezarri eta eskatzen du, ordenantza honen arabera, bat etorriz Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen foru arauak eta tributuen foru arauak ezarritakoarekin.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerri osoan aplikatuko da.

II. ZERGA EGITATEA

3. artikulua

Hiri lursailek zergaldian izan duten balio gehikuntza da zerga egitatea, lur horien jabetza edozein tituluz eskualdatzen bada edo horien gainean jabetza mugatzen duen edozein gozamen eskubide erreal eratzen edo eskualdatzen bada.

III. EZ-ZERGAPEKOA

4. artikulua

1. Ez da zerga honi lotuta egongo ondasun higiezinaren gaineko zergaren ondorioetarako landa lurtzat hartzen diren lurren balio gehikuntza.

2. Honako hauek ez dira zergaren pean egongo: ezkontideek ezkontza sozietateari egindako ondasun eta eskubide ekarpenak, hauen ordainetan beraien alde egiten diren esleipenak, eta ezkontideei beren ondasun komunak ordainetan egiten zaizkien eskualdaketak.

Xedapen bera aplikatuko zaie, aurreko paragrafoan aipatzen diren kasu berberetan, izatezko bikoteko kideek egiten dituzten ekarpen, adjudikazio eta eskualdaketei.

Honako hauek ere ez daude zergapean: ezkontza baliogabetze, banantze edo dibortzio kasuetan edo izatezko bikotea amaitzean emandako epaiak betetzearen ondorioz ezkontideen artean eta izatezko bikoteko kideen artean gertatzen diren ondasun higiezinak eskualdaketak, eta seme-alaben alde egiten direnak, ezkontzaren araubide ekonomikoa edo ondarearen araubide ekonomikoa gorabehera, hurrenez hurren.

3. Ez dira zergapean egongo lurren eskualdaketak, horiek eskualdatu eta eskuratu direneko balioen artean gehikuntzarik ez dela egon egiaztatzen bada.

Horretarako, balio gehikuntzarik ez dagoela egiaztatu nahi duen pertsonak edo erakundeak eskualdaketa aitortu eta eskualdaketa edo eskuraketa dokumentatzen duten tituluak aurkeztu beharko ditu.

Balio gehikuntzarik ez dela egon egiaztatzeko, lurren eskualdatze edo erosketa baliotzat hartuko da kasu bakoitzean balio hauetatik handiena, baina horren ondorioetarako ez dira kontuan hartuko eragiketa horiek zergapetuko dituzten zergak edo gastuak: eragiketa dokumentatzen duen tituluan ageri dena edo, hala dagokionean, zerga administrazioak egiaztatutakoa.

Baldin higiezin bat eskualdatzen bada eta lurzorua eta eraikuntza biak badaude, honako hau hartuko da lurzoruaren baliotzat: zergaren sortzapen datan lurzoruaren katastro balioak gutzitiko katastro balioarekiko adierazten duen proportzioa aplikatzearen emaitza, eta proportzio hori eskualdatze balioari zein, egoki bada, erosketa balioari aplikatuko zaio. Proportzio hori bi dezimalekin adierazi behar da.

Erosketak edo eskualdaketak irabazia badakar, aurreko paragrafoetan ezarritako arauak aplikatuko dira, eta lehen aipatutako bi balio alderagarrietatik lehenengotzat hartuko da oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan aitortutakoa, egoki denean.

Apartatu honetan aipatzen diren higiezinak ondoren eskualdatzean, lurren balio gehikuntza izan den urte kopurua zenbatzeko, ez da kontuan hartuko erosi aurreko aldia. Paragrafo honetan xedatutakoa ez da aplikatuko artikuluan honen 3. apartatuan edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren hemezortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera zergapean ez dauden ondasun higiezinak ekarpenen edo eskualdatzeen kasuan.

IV. HOBARIAK ETA SALBUESPENAK

5. artikulua

1. Ondoko egintzen ondorioz gertatzen diren balio gehikuntzak salbuetsita daude:

a) Zortasun eskubideak eratu edo eskualdatzea.

b) Ondasun Higiezinak gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bategina onetsi zuen irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 4.1 k) artikuluan jasotzen den salbuespena aplikagarria zaien ondasunen eskualdatzeak, baldin eta haien jabeek edo eskubide errealeko titularrek egiaztatzen badute ondasun higiezin horietan kontserbazio, hobekuntza edo birgaitze lanak egin eta ordaindu dituztela.

2. Era berean, zerga horretatik salbuetsita egongo dira dagozkion balio-gehikuntzak, zerga ordaintzeko betebeharra honako pertsona edo erakunde hauei dagokienean:

a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia, eta estatuaren erakunde autonomoak eta lurralde administrazio horietako antzeko izaerako zuzenbide publikoko erakundeak.

b) Zerga kobratzen duen udalerria eta udalerrri horrek osatzen dituen edo haren osakide diren gainerako udal entitateak, bai eta haien zuzenbide publikoko entitateak ere, Estatuaren erakunde autonomoen pareko izaera dutenak.

c) Ongintzako edo ongintza-irakaskuntzako erakundeak.

d) Gizarte Segurantzak, mutualitateak eta montepioak kudeatzen dituzten erakundeak, indarrean dagoen legediarekin bat etorritik eratutakoak.

e) Administrazio emakiden titularrak, baldin eta emakida horiek eragindako lursailari berriro aplikatzea badago.

f) Gurutze Gorria eta arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuk.

g) Nazioarteko hitzarmen edo itunetan zerga honen salbuespena onartuta duten pertsonak eta erakundeak.

3. Zergaren kuota ehuneko 90eko hobaria egongo da heriotza dela eta lurra eskualdatzen direnean eta jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealek eskualdatzen edo eratzten direnean, egintza horiek irabazi asmoz honako hauen alde egiten direnean: lehen graduko ondorengoak edo adoptatuak, lehen graduko aurrekoak edo adoptatzaileak, edo ezkontideak edo izatezko bikotekideak –Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratuta egon behar dute–. Beti ere beraien sarrera gordinak ez badira 21.957,50 euro baino gehiago, eta eskuratutako ondasuna jaraunslaren ohiko etxebizitza bada.

Hobari hori aplikatzeko, diru-sarrerak baloratzeko, subjektu pasiboak sortzapena gertatzen den ekitaldiko urtarilaren 1ean foru aldundiak likidatutako azken ekitaldiari dagokion errenta aitorpena aurkeztu beharko du, eta aitorpen hori egitea nahitaezkoa ez bada, ekitaldi horretan lortutako diru-sarrerak egiaztatzen dituen dokumentazioa.

V. SUBJEKTU PASIBOAK

6. artikulua

1. Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa:

a) Lursailen eskualdaketetan edo jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealeen eraketan edo eskualdaketan, irabazizko izaera dutenean, lursaila eskuratzen edo dena delako eskubide erreala bere alde eratu edo eskuratzen duen pertsona fisiko nahiz juridikoa, edo Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 33. artikuluan aipatzen den erakundea.

b) Lursailen eskualdaketetan edo jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealeen eraketan edo eskualdaketan, kostu bidezko izaera dutenean, lursaila eskualdatzen edo dena delako eskubide erreala eratu edo eskualdatzen duen pertsona fisiko nahiz juridikoa, edo Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 33. artikuluan aipatzen den erakundea.

2. Aurreko apartatuko b) letran aipatzen diren kasuetan, zergaduna Espainian bizi ez den pertsona fisikoa bada, zergadunaren ordezkari subjektu pasibotzat joko da lurra eskuratzen dituen edo eskubide erreala eratzten edo eskualdatzen zaiona, dela pertsona fisikoa edo juridikoa, dela Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 33. artikuluan aipatutako erakundea.

VI. ZERGA OINARRIA

7. artikulua

1. Zerga honen oinarria sortzapenaren unean agerian jarritako eta gehienez ere 20 urteko epean hiri lurrek izandako balioaren benetako gehikuntza izango da. Hura zehazteko, artikulua honen 4. apartatuan xedatutakoa baztertu gabe, sortzapenaren uneko lurraren balioa 3. apartatuan ezarritako koefizientearekin biderkatuko da, 2. eta 3. apartatueta ezarritakoaren arabera kalkulatuta.

Zerga oinarria zehaztearen ondorioetarako, kontuan hartu beharko da lursailak sortzapenaren unean daukan balioa, artikulua honen 2. apartatuan xedatutakoarekin bat, eta eranskinean jasotako eskalaren ehunekoa.

2. Lurrek sortzapen unean duten balioa kalkulatzeko erregela hauek aplikatuko dira:

Lurren eskualdaketa, lursailek sortzapen egunean duten balioa une horretantxe ondasun higiezinaren gaineko zergarako ezarrita dagoen berbera izango da.

b) Jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealek eratzean eta eskualdatzean, eranskinean jasotako urteko ehunekoak, artikulua honen 3. apartatuan ezarritako arauak aplikatu ondoren, aurreko letran zehaztutako balioaren zatiari aplikatuko zaizkio. Zati hori aipatutako eskubideen balioaren adinekora izango da eta balio horren zenbatekoa ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarako ezarritako arauak aplikatuz zehaztuko da.

c) Eraikin edo lursail baten gainean solairu bat edo gehiago igotzeko, edo lurzorua azpian eraikuntza egiteko eskubideak eratzean edo eskualdatzean —lurrazal eskubide erreal bat izan gabe ere—, eranskinean jasotako urteko ehunekoak, artikulua honen 3. apartatuan ezarritako arauak aplikatu ondoren, a) letran zehaztutako balioaren zatiari aplikatuko zaizkio, baldin eta, horri dagokionez, eskualdatzeko eskrituran finkatutako proportzionaltasun modulua islatzen badu edo, halakorik ezean, lur arrasean edo lur azpian eraiki beharreko solairuen azaleraren eta behin eraikita horiek duten azalera edo bolumen osoaren arteko proportzioa ezartzearen ondoriozkoa.

d) Nahitaezko desjabetzeetan, eranskinean jasotako urteko ehunekoak, artikulua honen 3. apartatuan ezarritako arauak aplikatu ondoren, lurraren balioari dagokion balio justuaren zatiari aplikatuko zaizkio, 2. apartatuaren a) letran zehaztutako balioa txikiagoa denean izan ezik; izan ere, halakoetan balio hori hartuko baita kontuan eta ez balio justuarena.

3. Balio gehikuntzaren sortzapen aldia izango da gehikuntza hori azaldu den urte kopurua.

Zergapetu gabeko kasuetan, foru arauak besterik esaten ez badu behintzat, lurraren ondorengo eskualdaketa batean azaldutako balio gehikuntzaren sortzapen aldia kalkulatzeko, aurreko zerga sortzapena gertatu zen data hartuko da eresketa datatzat, aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako.

Igarotako urte kopurua zenbatzeko, urte osoak hartuko dira kontuan, hau da, ez dira urte zatiak zenbatuko. Baldin sortzapen aldia urtebete baino laburragoa bada, urteko koefizientea hainbanatuko da hilabete osoen kopurua kontuan hartuta, hau da, ez dira hilabete zatiak zenbatuko.

Sortzapenaren unean lurzorua duen balioari aplikatu beharreko koefizientea, aurreko apartatueta ezarritakoaren arabera kalkulatuta, balio gehikuntza sortu den aldiaren arabera izango da, honako taula honen arabera:

SORTZAPEN ALDIA	KOEFIZIENTEA
Urtebete baino gutxiago	0,14
1 urte	0,13
2 urte	0,14
3 urte	0,14
4 urte	0,14
5 urte	0,17
6 urte	0,16
7 urte	0,12
8 urte	0,10
9 urte	0,09
10 urte	0,08
11 urte	0,08
12 urte	0,08
13 urte	0,08
14 urte	0,09
15 urte	0,09
16 urte	0,10
17 urte	0,13
18 urte	0,17
19 urte	0,23
20 urte edo gehiago	0,40

4. Subjektu pasiboak eskatuta, balio gehikuntzaren zenbatekoa artikuluko honetako aurreko apartatuetan xedatutakoaren arabera zehaztutako zerga oinarriaren zenbatekoa baino txikiagoa dela egiaztatzen bada, balio gehikuntza horren zenbatekoa hartuko da zerga oinarritzat.

VII. ZERGA KUOTA

8. artikulua

Zergaren kuota osoa zerga oinarriari ehuneko 12ko karga tasa aplikatzearen emaitza izango da.

VIII. ZERGAREN SORTZAPENA

9. artikulua

1. Zergaren sortuko da:

a) Eskualdaketa egunean, lurraren jabetza bizien artean edo norbaiten heriotzaren kausaz eskualdatzen bada, kostu bidez nahiz doan.

b) Jabaria mugatzen duen edozein gozamen eskubide erreal eratu edo eskualdatzen bada, eratzea edo eskualdaketa gertatzen den egunean.

Aurrekoaren ondorioetarako, haxe izango da eskualdaketa eguna:

a) Inter vivos egintzetan edo kontratuetan, agiri publikoa ematen den eguna; agiria pribatua bada, erregistro publiko batean sartzen edo inskribatzen den eguna edo funtzionario publiko bati bere lanbidea dela-eta ematen zaion eguna.

b) Heriotzak eragindako eskualdaketetan, eragilea hil den eguna.

2. Lursaila eskualdatzea edo gozamen eskubide erreala eratu edo eskualdatzea ahalbidetu duen egintza edo kontratua auzitegiek edo administrazioek xedapen irmoz deuseztatu, hutsaldu edo suntsiarazten badute, subjektu pasiboak ordaindutako zergaren zenbatekoa berreskuratu ahal izango du, baldin eta egintza edo kontratu horrek irabazirik ekarri ez badio eta xedapen irmoa eman zenetik bost urteko epean egiten badu diru hori itzultzeko eskaera; justifikatzen ez bada interesdunek elkarri Kode Zibilaren 1.295. artikuluan aipatutako itzulketak egin behar dizkiotela, kostu ondorioa badagoela ulertuko da. Egintzak edo kontratuak kostu ondorioz izan ez arren, hutsalketa edo suntsiarazpena adierazten bada zergapeko subjektu pasiboak betebeharrak ez dituelako bete, ez da inolako itzulketarik egin beharrik izango.

3. Kontratuaren bi aldeek hala hitzarturik kontratua bertan behera geratzen bada, ordaindutako zerga ez da itzuliko, eta zergapeko egintza berritza joko da. Elkarren adostasuntzat hartuko dira bai adiskidetze ekitaldiko abenikoa bai demandari amore ematea.

4. Egintza edo kontratuak baldintzaren bat dutenean, Kode Zibileko preskripzioen arabera kalifikatuko dira. Baldintza etengarria bada, Zerga ez da likidatuko hura bete arte. Baldintza suntsiarazlea bada, zerga erreserba gisa eskatuko da, aurreko apartatuaren arauari jarraituz, dagokion itzulketa egiteko baldintza betetzen denean. Testamentu ahalordearen bidez emandako jaraunspenetan, ahala guztiz erabilitakoan edo ahala iraungitzeko gainerako kausaren bat gertatzean sortuko da zerga.

5. Testamentua egiteko ahalordean zerga honen menpe dauden jaraunspen ondasunak gozamenean emateko eskubidea norbaiti ematen bazaio, gozamen horren likidazio bikoitza egingo da, ahalorde horretaz baliatzen ez den bitartean: behin-behineko likidazio bat, ondorengotza zabaltean sortuko dena, biziarteko gozamenaren arauari jarraituz, eta behin betiko beste bat, testamentu ahalordea erabiltzean, aldi baterako gozamenaren arauari jarraituz, kausatzailea hil zenez geroztik igaro den denborarengatik; behin-behineko likidazioan ordaindutakoa konturako sarreratzat joko da, eta bien arteko aldea gozamendunari itzuliko zaio, haren aldekoa ateratzen bada. Aldi baterako gozamenarengatik egiten den behin betiko likidazio hori jaraunspenarekin batera egingo da, jaraunspen horiek testamentu ahalarengatik edo hura amaitzeagatik baldin badira jaraunspenak.

IX. KUDEAKETA

10. artikulua

Subjektu pasiboek zerga aitorpena aurkeztu beharko diote udal administrazioari, udalak berak emandako eredu ofizialari jarraituz; eredu ofizial horretan zerga harremanaren elementuak eta likidazioa egiteko beharrezko eta ezinbesteko diren gainerako datu guztiak egon beharko dira. Aitorpena aurkezteko egintza berean kuotaren ordainketa egin beharko da.

11. artikulua

Aitorpena aurkezteko eta ondorio duen kuota ordaintzeko epe hauek hartu beharko dira kontuan, zerga sortzen den egunetik kontatzen hasita:

a) Inter vivos egintzak direnean, epea 30 egun balioudunekoa izango da.

b) Heriotzaren kausazko egintzak direnean, epea sei hilabetekoa izango da, urtebetara ere luza daitekeena subjektu pasiboak hala eskatzen badu.

12. artikulua

1. Aitorpenarekin batera, ezarpena eragin duten egintzak edo kontratuak zehazki azaltzen dituen agiri kauto bat aurkeztu behar da.

2. Eskatutako salbuespenak edo hobariak egoki justifikatu beharko dira agiri bidez.

13. artikulua

Udal administrazioak errekerimendua egin diezaieke interesdunei aurkez dezaten zergaren likidazioa egiteko beharrezko jotzen dituen beste agiri batzuk, hogeita hamar eguneko epean, zeina beste hamabost egunez luza daitekeen interesdunak hala eskatuz gero; egindako errekerimenduari epe horren barruan erantzuten ez dietenek, dagozkien arau-hauste eta zerga zehapenak izango dituzte, agiri horiek beharrezkoak liratekeen heinean aitorpena egiaztatzeko. Adierazi diren agiri horiek interesdunak bere onurarako bakarrik alegaturiko inguruabarrak frogatzeko bitarteko hutsak baino ez badira, errekerimenduari erantzuten ez badio, likidazioa egingo da, baina alegatutako eta justifikatu gabeko inguruabarrak ez dira kontuan hartuko.

14. artikulua

10. artikuluan xedatutakoa alde batera utzita, honakoek ere subjektu pasiboentzat jarritako epe beretan emango diote zerga gaiaren berri udal administrazioari:

a) Ordenantza honetako 6.1. artikulua a) letran jasotako kasuetan, bizirik dauden ar- teko negozio juridikoan eman badira, dohaintza emaileak edo kasuan kasuko eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen duen pertsonak.

b) Aipatutako 6.1. artikulua b) letran aurreikusitako kasuetan, eskuratzailerak edo kasuan kasuko eskubide erreala haren alde eratu edo eskualdatzen zaionak.

15. artikulua

Era berean, notarioak behartuta daude udalari bidaltzera, hiruhileko natural bakoitzaren lehenengo hamabostaldian, aurreko hiruhileko naturalean egiletsi dituzten agiri guztien zerrenda, baldin eta haietan ageri badira zerga honen egitatea gauzatu dela agerian uzten duten egitate, egintza edo negozio juridikoak, salbu azken nahietako egintzak. Halaber, sinadurak aintzatesteko edo legeztatzeko aurkeztu dizkieten egitate, egintza edo negozio juridikoei buruzko agiri pribatuen zerrenda igorri behar dute epe beraren barruan. Artikulu honetan ezarritakoak ez du eragozten Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritako lankidetzazko bete- behar orokorra.

Notarioek udalari igorritako zerrendan edo aurkibidean, ondasun higiezinaren katastroko erreferentzia adierazi behar dute, erreferentzia hori bat datorrenean eskualdatu nahi direnekin.

16. artikulua

1. Udalak jakiten badu zerga gaiak ez direla aitortu 13. artikuluan ezarritako epean, interesdunei errekerimendua egingo die aitorpena aurkezteko, zergen arloko arau-haustea eta, hala badagokio, zehapenak alde batera utzi gabe.

2. Udalak aipatutako errekerimenduak eginez gero ere, interesdunek dagokien aitorpena aurkezten ez badute, ofiziozko espedientea bideratuko da, eskueran dauden datuez baliatuz, eta dagokien likidazioa egingo da, ordaintzeko epeak eta bidezko errekursoak adierazita, hala badagokio; gainera, zerga alorreko arau hausterik balego eta bidezkoa balitz, dagozkion zehapenak ezarriko lirateke.

XEDAPEN GEHIGARRIA

7-2 b) artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juri- diko Dokumentatuen gaineko Zerga onesten duen Foru Arauan ezarritakoaren arabera, honako arau hauek bete beharko dira:

1. Aldi baterako gozamenaren balioa, ondasunen balioarekiko proportzionala izango da, urtebeteko aldi bakoitzeko ehuneko 2, ehuneko 70 gaingitu gabe. Aldi baterako gozamenaren balioa zenbatzeko ez dira kontuan hartuko urtebete baino gutxiagoko denbora tarteak, eta urte- bete baino gutxiagorako gozamina ondasunen balioen ehuneko 2kotzat zenbatuko da.

2. Biziarteko gozamenen balioa ondasunen balio osoaren ehuneko 70 dela joko da, gozamenenak 20 urte baino gutxiago baditu. Zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta txikiagoa izango da balioa; hain zuzen ere, ehuneko 1 gutxiago urte bakoitzeko. Gutxieneko muga, betiere, balio osoaren ehuneko 10 izango da.

3. Beste pertsona juridiko baten alde ezarritako gozamena 30 urte baino gehiagorako edo aldi mugagabe baterako ezartzen bada, gozamen hori baldintza suntsiarazlearen menpe dagoen jabetza osoko eskualdaketatzat joko da zerga ordainketarako.

4. Jabetza soilaren eskubidearen balioa gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren artean kenketa eginez kalkulatu da. Aldi baterakoak diren bizitza osorako gozamenetan jabetza soila kalkulatu da aplikatuz aurreko arauetatik balio gutxien ematen diona.

5. Erabiltzeko eta bertan bizitzeko eskubide errealean balioa kalkulatzeko, aldi baterako edo bizitza osorako gozamenak baloratzeko erregelak aplikatuko zaizkio, kasuan-kasuan, ondasun horien gaineko zergen balioaren ehuneko 75ari.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Toki araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testuategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1.986 Legegintzako Errege Dekretuaren 350.1 artikuluko b) modalitatean ezarritako zergaldia, edozein kasutan, 1989ko abenduaren 31n bukatuko da, hamar urteak bete ez badira ere. Ondorioz, egun horretan gertatuko da modalitate horri dagokion sortzapena; une horretan egingo da likidazioa, kasuan kasuko hamarkadan igarotako urteen kopuruarengatik dagokiona, hain zuzen. Aipatutako modalitate horretan erakunde batek egindako konturako ordainketa guztiak ordenantza honetako 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik sortutako azken likidaziotik kenduko dira.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau ALHAOn argitaratzean jarriko da indarrean, eta hala iraungo du indargabetzea edo aldatzea erabakitzen den arte.